

Itxaro Borda

Trenaren hots ezia

Europa neoliberala osatzen duten jakintsuak, kazetariak batez ere, hon-
dar urteotako Frantziako gatazka
sozialetaz handizki burlatzen omen
dira. Ez bat ez bi, politika erabaki
batez kontent ez baldin badira, frantse-
sak, euskaldunak barne, karrikara jaisten
dira, herria grebaz blokeatzen dute, gre-
balarien taldea, prentsak dioenez, minoria
bekaitz bat baizik ez delarik: lan zaleek
grévistes egoïstes oihukatzen dute, ezpainak
ezkel, grebalariek sekula gurutzatzen bali-
tuzte, arrabiaz kalituko lituzketela eran-
tsiz. Mukitsu neoliberalek zuzentasuna
eta Konstituzioan bereziki idatzi lanerako
eskubidea non dauden galdatzen dute,
steadycam gosetien aitzinean.

Azaroaren 20an Baionako kaleetan,
beste bospasei mila lagunekin manifesta-
tzen nembilela greba ideia-
ren bukaeraz gogoeta nin-
tzen. Greba, amodioa
bezainbat maite dut. Ala-
baina orduan laneko bal-
dintzetaz, lan gehiago egin
diru gehiago irabazteko
lema *sarkoziarren* histeriak
itxuraldatu lanaren ideolo-
giaz eta gainerako ofizioe-
takoekin solastatzen gara,
bestela bakoitza gure
zokoetan gaude, marmazi-
ka, nagusien tirania mos-
kotaren mende, buruak
apal. Egunerokotasun ziri-
katuaren oihalean, greba
urrako sano bat da, mass-
mediak goizetik arrats
arrunt kontra agertu arren, eta jainkoak
daki berri sailak sakratuak direla herriki-
de anitzentzat.

Aldaketa sakona agitzen ari dela ezin
uka. Kazetariak grebalariez doi bat obje-
tiboki mintzo ziren garai bat izan zen,
2003ko Fillonen erretireten erreformaren
kontrako mugimenduraino, hots. Aurten,
naski, ederki ordainduak diren telebiste-
tako gobernuaren *fidelis canis* horiek
mugak gainditu dituzte: SNCF eta
RATPko grebalariek pribilegiatu, gaizta-
gin eta kasik terrorista sozial erara aur-
keztu dizkigute, grebalarien ekintzak bi



GAIZKA IROZ

minutuz eta hiritarren negar-arpuluak
aldiz luzekei presentatuz. Jakina da neo-
liberalismoa afektibitatean bermatzen
dela, herra, gaizkizan eta auhen uhinak
oro baliatu eta manipulatu. Grebalariek
ez dira alabaina RMIstak, baina asko
SMICaren heineko edo pixka bat gora-
xeagoko hilabete-sariak dauzkaten fun-
tzionario gorrotatuak direla azpimarra
dezagun, salbuespenak salbuespen noski.
Ez da politikarik egiten salbuespenekin,
salbuespenak aurreratzen direla, gaztigu
politikoak bidera eta oroengana heda-
tzeko. Betikoa: txikiak lehertu eta han-
diak laudatu, ezen olde berean, maioria
isil horretako ingraturak ausarki txalotu
dute Sarkozy lehendakari soldata
%140ez igotzea, *hipokrisia baten bukaera*
xuxurlatu dute irri batez.

Behereko frantsesak,
jubilatua da eta 1945az
geroz martxan jarri egitura
sozialetaz aprobetxatzen
du, sindikatuen diktadura-
ren akabantza amesten du,
sindikatuak debekatu behar-
ko litezke, edozein baldin-
tzetan lanerako dretxoaren
faborez laneko eskubide
sozialak, soldata minimoa,
hogeita hamabost ordu naz-
kagarri horiek ezabatu, eta
telebistetan nehoiz inuxen-
teki pasatzen ez diren erru-
maniarren erudia Frantzi-
an zabaldu: hirurogei oren lan,
berrehun eurorentzat.
Errumaniarrak horrekin

pozik dira, zergatik ez frantsesak?

Neoliberalek, jendeak plegarazten
dituen *kaosa* antolatzen dute eta samin
bortitz meta urrintsuan zutunik, Villiers
Le Bel-en bezala, ordena mantentzen dute
ikusgarriki, poliziek axolagabezia edo
berdin ohituraz, bi haur hotz hil(tzen utzi)
dituztela ahantzarazteko, eta katiminian,
diputatuak *laneko kodea*, MEDEFak seina-
laturiko arkaismo sozialetaz garbitzen ari
dira: gobernuaren ahoa, bere elea bezain
zuria da. Hannah Arendten *Gezurra politi-
kan* artikulua irakurtzekoa da.

Berehala. ■

« Aurten, naski, ederki ordainduak diren

telebistetako gobernuaren *fidelis canis*

horiek mugak gainditu dituzte:

SNCF eta RATPko grebalariek

pribilegiatu, gaiztagin eta kasik terrorista

sozial erara aurkeztu dizkigute